

Itxaro Borda

Hannah Arendt Gursen

I

Armada gorriko soldaduek
Duela hiru hogeitun urte
 Ez zituzten
Auschwitzeko labeak ikusi
Urkiak dorpearen erdian,
Elurak estali
Exterminazio zelaia
 Bidean harrapatu
 Zutenean.
 Ez zituzten
Auschwitzeko labeak ikusi,
Goseak hezurtu bizidun andana
 Aztoratuak baizik.
 Ez zuten ulertu han zinez
 Gertatu zena:
Herio planifikatua,
 Zeldetako hotza,
Jendetasun zangopilatua
 Eta mota orotako
Gure haurrideen suntsiketa
 Metodikoa.

II

1940ko Paris setiatuko
 Buruzagi konplaxentek
 Benjamin eta Blücher
Ariega eskualdeko Vernetera
 Bidali zituzten.
 Hannah Arendt
Vel d'Hivera eroan zuten
Bere judutar
 Kideekin:
 Inork ez zuen
Parisko maiatz
 Eztiaren dastatzeko
 Betarik ukan.
Trenak aleman iheslariz
Bete ziren
 Eta Hannah Arendt
 Gursera
Ekarri zuten
Preso.

Gurs,
Esperantzaren
Azken geltokia zen Hannah,
Izarraren distira
Herio izengabearen
Seinale zelako.

III

Baina udazken arratsalde batez Gursetik
Ihes egin zuen Hannah Arendtek
Eta mendiz mendi Lisboako bidea

Hartu:

Rennt Hannah rennt.

Arratsalde hartan Gurseko
Kontzentrazio gune hormatuan
Zelda huts bat zeukaten

Zaindarien:

Rennt Hannah rennt.

New Yorkeko portuan,
Alemaniarren izpiritua errautsi zuen
Berunezko tapaki totalitarioa aztertzeari
Ekingo ziola hitz eman zuen:

Rennt Hannah rennt

Belaunaldi berrien

Soseguz

Rennt Hannah rennt.

Itxaro Borda (1959)

Ut: Noiztenka (Maiatz, 2007)

Hannah Arendt yn Gurs

I

De soldaten fan it Reade Leger
Sechtich jier lyn
 Seagen se net
De krematoaria fan Auschwitz
Tusken de tichte bjirken stean,
Doe't se op har paad
It lân fan ferneatiging
 Troch snie bedutsen.
 Fûnen.
 Se seagen net
De krematoaria fan Auschwitz,
Mar inkeld de útrûpele rigen
 Wyldeagige bonkerakken.
 Se begriepen út soarte net
 Wat der echt bard wie:
De planmjittige dea,
 De kjeld fan de barakken,
It minskdom fertrape
 En de metoadyske
Eksterminaasje fan ús bruorren en susters
 Fan alle slach en stee.

II

De waanwize lieder
 Fan it belegere Parys fan 1940,
 Deportearren Benjamin en Blücher
Nei Vernet yn it departemint
 Ariège.
 Hannah Arendt waard
Nei Vel d'Hiv stjoerd
Mei har Joadske
 Lotgenoaten:
 Nimmen hie 't oan tiid
Om fan dy maaïemoanne
 Yn Parys de huning
 Te priuwen.
De treinen sieten fol
Mei Dútske flechtlingen
 En Hannah Arendt
 Waard nei Gurs
Transportearre
En finzen set.
 Gurs,
 It lêste stasjon

Fan de hope, Hannah,
Want it glinsterjen fan de stjer
 Waard it teken
Fan in dea sûnder namme.

III

Mar op in middei yn 'e hjerst
Flechte Hannah Arendt út Gurs
En naam it paad oer de bergen
 Oant Lissabon:
 Draaf Hannah draaf.
 In lege barak
Fûnen de bewakers dy middei
Yn it froastige konsintraasjekamp
 Fan Gurs:
 Draaf Hannah draaf.
 Yn de haven fan New York
Wie se beret har tiid te brûken
Om de totalitêre kape fan lead
Dy't de Dútske geast fergruzele
 Ut te slachtsjen:
 Draaf Hannah draaf
 Foar it bêste fan de takomstige
 Generaasjes
 Draaf Hannah draaf.

Oersetting: Syds Wiersma